

BATZOKIKO MARGOKETEN HARIRA

"Kezkaz eta harriduraz bizi dugu EAJren agiria. Kezkaz bizi dugu, Arrasaten bizikidetza eta gatazka politikoaren konponbidea eraikitzen gaudenean honelako kritika politiko batetik biktimismoari heldu eta beste indar politiko batzuk zalantzan jartzeko baliatzea abagunea hedabideak baliatuz.

Gertatukoari dagokionez, neurrigabea iruditzen zaigu EAJren erantzuna. Batzokian egindako pintaketetan ez dago mehatxurik gure ustez, ez eta irainik ere. Kritika politikoaren barruan kokatzen dira eta naturaltasun handiagoz hartu beharko lituzke, biktimismo oportunistak gabe. Garbi daukagu margoketek indar poliziala baliatuz suntsitu nahi diren ekimen sozialen defentsa baino ez dutela adierazten. Bihoa hemendik gure elkartasuna Maravillaseko eta Kijerako gazte ekintzaileei. Herri biziak nahi izatea ez da delitua.

Bizikidetza ez da disidentzia ororen isiltzea, urratsak eman ahal izateko helmuga baizik. Jarraitu dezagun lanean."